Sanferminak 2013 iruñean
GARA
GEHIGARRI BEREZIA

Testuak, **Eloi GALARTZA**

2013/7/5

# Jaiaren deia




Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

• 110. URTEURRENA •••

# La Unica: bakarrak eta aitzindariak



Jabiertxo Andiarena (ezkerretik lehena), La Unica peñako beste bazkide batzuekin, elkarteko egoitzan.
Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

**Aurten, 110 urte beteko ditu La Unica peñak. Historia luzea izan arren, aitzindari eta berritzaile izan da elkarte hau festaren garapenean**

«Etxean ez dugu inoiz zapi gorririk eduki», dio La Unica peñako batzordeko kide Patxi Molinak. Ez du gogoan noiz egin zen elkarteko kide, «gurasoak ere peñakide zirelako, eta txikitan apuntatu nindutelako». Belaunaldiak gainditzen dituen elkartea da. Iruñeko zaharrena. Aurten beteko ditu 110 urte, eta beti bezain gazte eta apurtzaile jarraitzen dute bertoko kideek.

XX. mendearen hasieran sortu zen La Unica. 1903. urtea zen, eta gipuzkoarrez eta iruindarrez osatutako lagun talde bat izan zen horren ernamuina. Abesti eta instrumentuekin kaleak alaitzen zituzten, eta gaur egun bezala, agintariek ez zituzten begi onez ikusten. Bakarrak izan ziren haize-instrumentuak erabiltzen, sanferminetan kaleak alaitzen, eta aitzindariak, emakumeen presentzia jaietan bermatzen. Apika-apika, jende gehiago batu zitzaien, handik zenbait hamarkadaren buruan, peña ofiziala sortu arte. Gaur egun, 300 bazkidek eta 157 peñakide txikik osatzen dute La Unica elkartea.

Hala ere, ez dute ospakizun berezirik egiteko asmorik. «Egia esan, ez dugu ezer pentsatu. Azken bi urteetan, peñaren zaharberritze prozesuan murgilduta ibili gara: estatutuen aldaketa, egoitza handiago bat erosteko ahaleginak, diru-zaintza eta administrazio funtzionamenduaren berritzea... Aldaketa asko izan dira denbora gutxian, eta ez dugu denborarik izan bestelako kontuetan pentsatzeko. Horrek ez du esan nahi ospatzeko gogorik ez dugunik, baina gure urtebetetze-festa, agian, 117. urteurrenean etorriko da. Nork daki», azaldu du Jabiertxo Andiarenak, batzordeko beste kide batek.

Ezagutzeko errazak dira La Unica peñako kideak, gorria ez delako haien janzkeran ikusten. Txuriaren gainean zapi eta gerriko berdea daramatzate. Espartinen kordak ere berdeak dira. Blusa, aldiz, koadro urdin eta zuriduna da. «Askok galdetzen digute zergatik erabiltzen dugun zapi berdea. Arrazoi asko asmatu ditugu urteetan zehar, atzerritarrei kontatzeko: tabernetan dohainik edan ahal izateko Udalak emandako sari bat dela, homosexualak garelako janzten dugula, edo entzierroko lasterkari onenak garelako, edo independentistak garelako... eta beste hamaika txorakeria gehiago. Eta hori guztia gure hiriko bandera lepoan loturik ibiltze hutsagatik!», azaltzen dute elkarteko kideek euren webgunean.

La Unica peña 1903. urtean sortu zela diote zenbait dokumentuk, baina horiek guztiak egoitza aldaketetan eta sute batean galdu ziren. Arkeologoen eta forentseen lana egin behar da La Unica bezalako elkarte zahar baten jatorria aurkitzeko. «Existitzen den dokumentu zaharrena 1931koa da, baina agiri zaharragoak baziren lehen. Aktak, idazkietako erreferentziak... Gehienak 36ko gerraren ondorioz desagertu ziren, eta hainbat hamarkadaren ostean, beste zenbait dokumentu galdu genituen, egoitza aldaketa batean. Objektu eta agiri baliotsuak La Jarana peñari eman genizkion, lekualdaketa iraun bitartean gorde zitzan, baina sute bat piztu zen elkarte horretan, eta dena erre zen», azaldu digu Molinak. Ordutik, La Unicaren benetako jatorria erraust artean lurperatuta dago.

GIPUZKOARRAK ETA IRUINDARRAK. **1903. urtean sortu zen La Unica. Gipuzkoarrez eta iruindarrez osatutako lagun talde bat izan zen horren ernamuina. Agintariek ez zituzten begi onez ikusten.**

PEÑA SAN FERMIN
San Fermiñetan Kalixto tabernan gaude. San Francisco 10ean
Manuel de Falla, 17 Bajo • 31005 PAMPLONA-IRUÑA • Tel. 948 239 448
E-mail: penasanfermin@gmail.com • www.lasanfer.com


BAR ZURIZA
IRUÑA

Lislore
Zure loredenda
TELEFLORA
Kale Nagusia 70, IRUÑEA • Telf.: 948 22 51 79

36ko gerran peña desagertu zen, kide gehienak errepublikazaleak baitziren. Baina parrandazaletasuna odolean eramaten denez, gerraren ondoren zenbait lagunek peña berpiztea erabaki zuten. 1940ko hamarkadan, dirua biltzeko dantza jaialdi bat antolatu zuten. Lehenengoak izan ziren horrelako ekintzak antolatzen. Garai hartako moraltasunaren kontra joan ziren. Eta 1970eko hamarkada iritsi zen, eta lehenengo presidente emakumea izan zuen peñak.

### ALDAKETAK

Iruñeko peña bakoitzak izaera propioa dauka, eta beste batzuk itxiagoak izan diren bitartean, La Unicak ateak zabaldu dizkie herritarrei behin baino gehiagotan. «Ene ustez, gure elkarteak izaera zabala izan du beti. Jarana peñarekin batera, Osteguneko Dantzaldiak antolatzen hasi zen duela zenbait hamarkadetako sanferminetan, eta horietara Iruñea osoko jendea biltzen zen. Kapeak, kirol taldeak, emanaldiak... asko izan dira gizarte osoari begira antolatutako ekitaldiak», nabarmendu du Andiarenak. Izaera horrek bere horretan dirau.

Urteetan zehar asko aldatu ez den beste faktore bat Iruñeko Udalarekiko harreman hotza da, baina ezinezkoa zirudien arren, horrek ere okerrera egin duela diote peñako arduradunek. «Gaur egun, diru-laguntzen eskaerara eta Sanferminetako Mahaiaren bileretara soilik mugatzen da gure harremana. Inoizko momenturik txarrenean gaude orain, horri dagokionez. Duela 20 urte, adibidez, festa batzordea antolatzen zuen Udalak, eta parte hartzea oraingoa baino handiagoa zen. Orain, Iruñeko Udalak hartzen ditu erabaki guztiak, eta horretan esku hartzeko ditugun aukerak oso murritzak dira».

Horregatik, abisua eman nahi diote Enrique Maya alkateari, peñek festari egiten dioten ekarpena balioets dezan. «Udalaren egitarau ofiziala ona edo txarra izan daiteke, baina noizbait desagertuko balitz, sanferminak ez lirateke horregatik bukatuko. Jendeak festa egiten jarraituko luke karrikan. Aldiz, jai giro herrikoia errotik erauzten baduzu, ez dago sanferminik. Eta peñek garrantzia handia dute festa giro hori sortzeko orduan. Festa kalean dago. Kalea da».





**Familia-argazkia urtero egiten dute La Unica peñako kideek. Goiko irudia iazkoa da, eta bestea, 1933koa. Azken honetan peñakide guztiak azaltzen dira, emakume zein gizon, baina 36ko gerraren ostean, emakumeen parte hartzea murriztu zuen frankismoak.**
LA UNICA peñak utzitako argazkiak

## Emakumeen eskubideak aldarri

**Peñaren bi argazki zahar hartu ditu Andiarenak. 1933koa bata, 1937koa bestea. Batean, peñakide guztiak azaltzen dira, emakume zein gizon. Bigarrenean, mutilak besterik ez. «36ko gerraren ostean, emakumeen parte hartzea erabat murriztu zuen frankismoak. Gure peñak, alta, betidanik defenditu du borroka feminista. 1970eko hamarkadan izan genuen lehen emakumezko presidentea (beste edozein elkartetan baino lehenago), eta horren aurretik ere, emakumeek peñaren zuzendaritza organoetan parte hartu izan dute. Peñak horren alde egin du beti, eta emakumeek, jakina, tinko eutsi diote borrokari».**

**La Unica aitzindari izan da beti, baina ez soilik borroka sozialen alorrean. Jai ereduari dagokionez ere, besoak zabalik hartu dituzte orain arteko aldaketak. Baita hemendik aurrera etorriko direnak ere. «Hemendik 6 edo 8 urtera, sanferminen eredua erabat ezberdina izanen da. Duela hamarkada bat, zezenketara joateko soilik ematen zuen izena jendeak. Gaur egun, arazoak ditugu sarrerak banatzeko. Gazteek ez diote xarmarik ikusten zezenplazara joateari, eta jai ereduaren birplanteamendua ekarri beharko luke horrek. Gero eta gehiago dira zezenketen kontra azaltzen diren pertsonak, bai atzerritarrak, baita bertokoak ere. Ez diezaiogun bizkar eman errealitate horri», azaldu dute peñako bozeramaileek.**

**Ikusteko daude etorkizunak La Unica peñari eta, oro har, sanferminei planteatuko dizkien erronkak, baina segur aski, beti bezain gazte eta betiko umorearekin eginen diete aurre zapi berdedun iruindarrek.**



AISLAR ES AHORRAR
AislaNat, Euskal Herriko isolamendua
• en solo un día
• sin andamios
• sin obra
• sin manchar
• con un producto totalmente ecológico
AislaNat Aislante de celulosa
BIOKLIMA NATURE
948 33 00 15 / 627 41 22 69
Pol. Ezkabarte c/U nº7. 31194 Orikain (Nafarroa)

• PELÍCULA-DOCUMENTAL •••

# Un encierro que escapa de la pantalla

## El iruindarra Enrique Urdanoz y el holandés Olivier Van der Zee firman el documental en 3D «Encierro. Bull running in Pamplona»




**Cartel anunciador de la película producida y dirigida por Enrique Urdanoz.** GARA

Preguntas como ¿qué hace que, cada año, miles de personas se animen a arriesgar su integridad física en una carrera de dos o tres minutos? ¿Qué lleva a estos corredores a ponerse delante de las astas de una manada de toros, sin más premio que la satisfacción personal? son el punto de partida sobre el que el iruindarra Enrique Urdanoz elaboró el argumento de "Encierro. Bull running in Pamplona", una película documental que ha cosechado un gran éxito de crítica y público en los festivales en los que se ha proyectado hasta el momento. El pasado 28 de junio se estrenó en los cines Carlos III de Iruñea, y además se han programado pases continuos de la película durante los nueve días de San Fermín, para que todas aquellas personas que no se atrevan a ponerse las zapatillas y correr el encierro cada mañana, puedan sentir la emoción, el vértigo y la adrenalina de sentirse dentro de la carrera.

El documental se ha realizado utilizando las más novedosas técnicas de 3D estereoscópico, una técnica que le va como anillo al dedo a una actividad como el encierro, por lo que la sensación de inmersión es total. Cada zancada, cada golpe contra el vallado o los adoquines de Santo Domingo, cada cornada... Todo parece cobrar vida gracias a la última tecnología cinematográfica. «Es una película de acción» –resume el productor y director de fotografía Enrique Urdanoz–. La gente espera ver un documental al uso, y se encuentra en medio de la carrera, con todos los elementos saliendo de la pantalla. Es muy distinto de la imagen típica que todos tenemos de las retransmisiones del encierro. Los ángulos de cámara, la cinematografía, la música... Es una película que hay que ver en la gran pantalla. Un documental de acción, pero cargado de belleza, con una narrativa espectacular y unas imágenes nunca vistas hasta ahora».

Producido por D4D Ingeniería Visual (productora especializada en documentales, anuncios y contenidos 3D para diversas plataformas) y REC Grabaketa Estudioa ("Kutsidazu bidea, Ixabel", "Gartxot"), "Encierro. Bull running in Pamplona" es un documental de factura impecable, que cuenta con versiones en castellano, euskara, inglés y francés, y que ha supuesto años de trabajo para sus creadores. El rodaje en 3D se inició durante los sanfermines de 2009, pero debido a la temporalidad de los encierros (solo se celebran ocho al año), la gran complejidad logística, lo imprevisible de la carrera y la novedad del sistema, han sido necesarios cuatro años para completar la película.

«El encierro transcurre tan deprisa, que puedes pasarte días sin obtener una sola imagen aceptable. El primer día de rodaje, para cuando te das cuenta de lo que está pasando, ya ha terminado la carrera. Al día siguiente, lo mismo. Al tercer día, como la cámara estereoscópica es muy difícil de manejar, se te olvida apretar algún botón y no grabas nada... Hay muchísimas variables que hacen que el rodaje de un proyecto así sea especialmente complicado», explica Urdanoz.

En total, un equipo de más de sesenta personas ha participado en los rodajes, manejando cinco cámaras estereoscópicas cada día. Algunas de ellas eran prototipos capaces de alcanzar las 1.000 imágenes por segundo, lo que permite que, en ocasiones, podamos ver secuencias a cámara súper lenta sin perder un ápice de calidad y con todo lujo de detalles.

### UNA IDEA DE HACE 30 AÑOS

Aunque la producción de la película comenzase hace cuatro años, el germen de lo que acabaría siendo "Encierro. Bull running in Pamplona" empezó a gestarse mucho antes. Hace treinta años Enrique Urdánoz era cámara en el centro territorial de TVE en Iruñea. Junto a su compañero Javier Solano –personaje esencial para entender la historia del encierro de las últimas décadas–, comenzaron a barajar la idea de producir un documental sobre la carrera iruindarra, y llegaron a elaborar un argumento que incluía guión, narración, entrevistas, etc.

Según Urdánoz, en la obra actual apenas queda nada de aquel argumento, aunque sí que sirvió para sentar las bases del proyecto. Para Solano, aquella idea inicial solo era el «germen» del documental que puede verse actualmente en los cines de Iruñea. «Nuestro proyecto –recuerda– consistía en hacer un documental de una hora sobre el encierro. Teníamos guión técnico, guión literario... todo. Incluso presentamos el proyecto al Gobierno de Navarra. Sin embargo, al final ese documental no salió adelante. Por supuesto, la película que se estrena ahora



no es aquella obra, ni mucho menos, pero la base de la idea sí que es la misma».

De la narración con voz en off se pasó a un estilo más fresco, más cinematográfico, basado en la música y las imágenes. Eso sí, se mantienen las entrevistas y los testimonios de los protagonistas del encierro. Son ocho los rostros que aparecen en el documental, contando en primera persona sus experiencias con la fiesta, con los toros y con la carrera: además del propio Solano, el ganadero y pastor Miguel Reta; José Antonio Jimeno, padre del último fallecido en el encierro, y corredores ilustres como el iruindarra Miguel Ángel Eguíluz, el galés Noel Chandler, el neoyorkino Joe Distler o el donostiarra Julen Madina.

Todos ellos nos ofrecen una perspectiva muy personal de la carrera, alternando experiencias personales y anécdotas con toda la filosofía que rodea una tradición tan peculiar y arraigada como el encierro. «Los momentos más difíciles, más estresantes y angustiosos son los 10 ó 15 minutos antes de correr. Al llegar a ese momento, piensas en las expectativas, sabes que millones de personas en todo el mundo van a estar observando, y tú te colocas allí. Cuando entras en la Plaza de Toros, es como entrar en el Coliseo romano», explica Miguel Ángel Eguíluz en el documental.

Otro de los testimonios más interesantes es el del pastor y ganadero Miguel Reta, que detalla todas las heridas que le ha producido trabajar con toros. «Los pastores somos, en teoría, los protectores de los toros dentro del encierro, y quizá, lo que intentamos es tener cierta organización dentro de esa anarquía, de esa locura tan volátil y tan rápida de la carrera», resume.

## «Tiene una perspectiva de fuera»

**Para dirigir la película, Enrique Urdanoz propuso al holandés afincado en Donostia Olivier Van der Zee, con el que ya había colaborado en «778. La Chanson de Roland». Según el iruindarra, «tiene una perspectiva de fuera, no tiene esa carga sentimental con el encierro que podemos tener nosotros, y es muy interesante de cara a la proyección internacional del documental».**

**Y es que la película va dirigida al público de fuera de Euskal Herria. «En zonas como Iruñea, Bilbo o Iparralde sabemos que la película tendrá su público, porque el mundo del toro tiene mucho arraigo. También en el levante español o en Portugal. Sin embargo, hay un público, sobre todo el anglosajón, que tiene una ligera idea de lo que es el encierro por lo que les venden en las agencias de viaje, pero que nunca ha visto nada como esto, realizado con rigor y con la última tecnología», añade Urdanoz.**

**De momento, la película «Encierro. Bull running in Pamplona» ha sido ya seleccionada en el festival de cine de Los Ángeles y en el de Málaga, además de obtener una nominación al mejor documental en la pasada edición de los Premios Goya.**







**Varios fotogramas de la película-documental rodada en los encierros de Iruñea.** Fotos cedidas por Enrique Urdanoz






# «Dejé de comentar los encierros cuando desde Madrid quisieron tomar las riendas de la retransmisión»

**JAVIER SOLANO** ▪ Periodista

SU NOMBRE SE ASOCIA DE FORMA AUTOMÁTICA AL ENCIERRO. TRAS 15 AÑOS COMO CORREDOR Y 22 COMO COMENTARISTA PARA TVE, EN 2010 DECIDIÓ DEJAR LAS RETRANSMISIONES A RAÍZ DE SUS DESENCUENTROS CON LA DIRECCIÓN DEL ENTE. AHORA LA SITUACIÓN PARECE HABERSE ENCAUZADO. DURANTE LOS PRÓXIMOS DÍAS VOLVERÁ A SER LA VOZ DEL ENCIERRO.

**Llevas casi cuatro décadas vinculado al encierro. ¿Cómo te iniciaste en este mundo?**
Empecé a correr junto con mi hermano. Yo tenía 15 años, y él, 14. Corrimos con mi padre. Para él era su último encierro, y para nosotros, el primero, por lo que la experiencia tuvo algo de relevo generacional. Estuve corriendo durante 15 años, y posteriormente me propusieron hacer la retransmisión de los encierros para TVE. Eso fueron otros 22 años. Los últimos tres años he sido un simple aficionado.

**¿No te apeteció calzarte las zapatillas y correr de nuevo?**
¡Lo hice! Cuando dejé de retransmitir los encierros decidí que tenía que probarlo de nuevo. El 7 de julio de aquel primer año corrí otra vez, en contra del criterio de toda mi familia y amigos. Me decían que llevaba muchos años sin correr, que era muy mayor, que me arrollarían... Pero yo quería comprobar por mí mismo que mi tiempo había pasado.


Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

**¿Cómo fue la experiencia?**
Lo primero que me llamó la atención fue la cantidad de gente que había en el recorrido. Hoy en día casi no hay espacio para correr, y los toros van abriendo camino como auténticos quitanieves. Por otra parte, yo no corría lo mismo a los 25 años que a los 52, por lo que me pilló por sorpresa la velocidad de la manada. El caso es que corrí 15 metros de mala manera; me dieron un golpe en la pantorrilla, pero conseguí mantener el equilibrio y no caerme. En pocos segundos, vi de refilón la cabeza de un manso y al pastor Miguel Reta pasar como una exhalación. 'Bueno, pues ya se ha terminado', pensé. Como ya he dicho, quería comprobar que mi tiempo había pasado... y lo comprobé.

**¿No has vuelto a correr?**
¿Para qué? ¿Para estorbar? Podría haber ido más días, pero ya no tiene sentido. Hay que saber apartarse a tiempo para que no te pille el tren. Y el tren del encierro va a una velocidad impresionante. Si no estás en condiciones físicas óptimas, es mejor no correr.

**Llevas tres años sin comentar los encierros por televisión. ¿Qué ocurrió realmente para que decidieras dejarlo?**
Hasta 2007 la dirección de TVE en Madrid nunca se había preocupado por los encierros. Ellos simplemente nos daban la franja de 07:55 a 08:30 de la mañana, y de los contenidos nos ocupábamos nosotros. ¿Y qué pasó ese año? Que Cuatro empezó a hacernos la competencia. Se trajeron a su realizador estrella, pero fue un auténtico fracaso. No les funcionó nada. Sin embargo, la irrupción de Cuatro también provocó que desde TVE se decidiera contraatacar con todos los medios disponibles. Así, por primera vez, Madrid empezó a decidir contenidos de la retransmisión.

**El principio del fin.**
Exactamente. Hubo un desembarco madrileño impresionante. Pasamos de tener un apoyo puntual de 8 ó 10 personas para cuestiones técnicas, a recibir a más de 70 trabajadores que, además, tomaron las riendas de la retransmisión. Lo primero que hicieron fue alargar la duración del programa, lo que es un gran error. Llegamos a estar en antena dos horas, y eso es insufrible. Se metieron contenidos de magacín y de famoseo. Relleno. Desde ahí, mi relación con la dirección empezó a empeorar, hasta que en 2010 decidí que no aguantaba más, y renuncié. Desde entonces, cada año me llamaban desde Madrid y me preguntaban si quería hacer el encierro. "¿Como el año pasado?", les preguntaba yo. Ellos me respondían que sí, y entonces yo me negaba.

**Sin embargo, este año has dicho que sí. ¿Qué ha pasado?**
Me dijeron que querían volver a los orígenes y retomar el espíritu inicial, olvidándonos de los contenidos ligeros de magacín. Veremos cómo evoluciona la cosa a partir de ahora, porque como volvamos a las andadas, yo no pinto nada ahí.

**Si la cosa funciona, ¿hasta cuándo te ves retransmitiendo los encierros?**
Yo me encuentro muy a gusto, porque es un tema que me gusta y del que controlo bastante. Si puedo y las condiciones son aceptables, me veo haciendo esto muchos años.

BAR TXIKI-JAI
Gora jaiak!
Especialidad todo tipo de almuerzos cazuelicas, higadicos, txulas
El resto del año menú del día
Si tienes jai ven al TXIKI-JAI
C/ Ezquiroz, 25-trasera IRUÑEA

KATATXU JATETXEA
Hamaiketakoak, menua (bazkari eta afariak) eta martxa asko
Menu mediodia: 24,90€
Menu noches: 20€
ENTZIERROA IKUSTEKO GOSARIA PANTAILA ERRALDOIAREKIN
Indartxikia, 16 ✆ 948 22 60 28
Sarasate pasealekua · Gaztelu plaza · Indatxikia · Eliza · Katatxu · San Nikolas plaza

Garijo
Jai zoriontsuak
BITXI ETA ERLOJU DENDA
• Geure tailerra dugu.
• 44 urteko esperientzia.
San Alberto el Magno, 2 • Tel. 948 254 372 • IRUÑEA

# Ghettoan sartu nahi dute euskara

Har dezagun une batez Iruñeko Udalaren jai egitarau ofiziala. Zeintzuk dira kontzertu nagusiak? Chambao, La Pegatina, El Consorcio, Tierra Santa, Celtas Cortos, M-Clan eta Mojinos Escozios, besteak beste. Estilo eta garai ezberdinetako taldeak denak, orotariko publikoari zuzenduko zaizkienak. Badute, ordea, ezaugarri komun bat ere. Guztiek ala guztiek gaztelaniaz abesten dute. Eta ez da kasualitatea. Estatu espainoleko pop kultura uniformizatzaileari begira antolatzen ditu Iruñeko Udalak musika eta kultura emanaldi guztiak. Urte osoan zehar, baina bereziki sanferminetan.

Hori bai, urtero-urtero, txoko txiki bat eskaintzen dio euskaraz ekoizten den musikari. Taconera parkean, Nafarroa Oinezen txosnaren ondoan, festaren bihotzetik urrun samar. Euskara eta euskaldunak begien bistatik kentzea eta zokoratzea beste asmorik ez duen agintari batek ez luke Iruñeko Udalarena baino estrategia hoberik eta garbiagorik topatuko. Aurten, gainera, murrizketak pairatu dituzte sanferminetako aurrekontuek. Egitarauari begiratua ematea aski da ikusteko euskal musikaren txokoa kaltetuenetako bat izan dela. Eta ez taula gainera igoko diren artistek kalitaterik ez dutelako, ezta hurrik eman ere, baizik eta emanaldiak eskasak direlako (kontzertuak lau egunetan, bertso saio bat, haurrentzako ikuskizun bat eta hainbat dantzaldi) eta, oro har, izen handiko taldeak eta artistak falta direlako.



Egitarau ofizialean leku gutxi dago euskal musikarako. Irudian, kontzertu bat Takonera parkean, iazko edizioan. Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

**EGUNEZ EGUN**

Udalak uztailaren 6tik 14ra bitarteko festa egitaraua prestatu duen arren, Euskal Musika izeneko txokoan ez da egunero emanaldirik izanen. Uztailaren 6an, adibidez, Iruñeko euskaldunek nekez topatuko dute euskarazko eskaintzarik egitarau ofizialean. Hurrengo egunean, bai. 19.30ean, Joseba B. Lenoirek folk-rock alternatibo eta blues estiloetan oinarritutako emanaldia eskainiko du, eta gauerdian, berriz, Skasty taldea igoko da Taconerako agertokira.

Uztailaren 8an ere ez dago ekitaldirik euskaraz. Egun horretan euskaldunak ez ei dira existitzen, Enrique Mayaren udal gobernu taldearentzat. Hilaren 9an, Jon Basagurenek "Itsasargiak" proiektu musikal berria aurkeztuko du Iruñean... berriro. Izan ere, artista interesgarri honek ekainaren 13an jo zuen Erraldoien Txokoan, Iruñeko Udalak berak antolatutako "Kantu eta hitza" zikloaren baruan. Egun horretan bertan, baina 24.00etan, Willis Drummond rock talde baionarrak bere zuzeneko indartsuarekin gozatzeko aukera emanen digu.

Uztailaren 10erako, berriz, Udalak ez du kontzerturik programatu. Iruña Taldearen fanfarreak giroa alaituko du 13.00etan, eta 19.30ean, berriz, "Kosmolariak" haurrentzako ikuskizuna eskainiko da.

## Bertso saioa eta euskal rocka

**Ekitaldirik interesgarrienetako bat, zalantzarik gabe, uztailaren 11ko bertso saioa izanen da. Erika Lagoma, Maialen Lujanbio, Alaia Martin eta Xabier Silveira ariko dira taula gainean. Eta gauean, The Sparteens taldeak euskal rockaren abesti gogoangarrien bertsio dantzagarri eta dibertigarriez osatutako kontzertua eskainiko du.**

**Euskal Musikari eskainitako zikloan, uztailaren 13an izanen dira azken kontzertuak. Urko Menaia kantautoreak joko du 19.30ean, eta Kokein rock taldeak, berriz, gauerdian. San Lorentzoko gaiteroen, Gasteizko trikitilarien eta Kalejira Kultur Elkartearen dantzaldiak ere Euskal Musikaren agertokian programatu ditu Iruñeko Udalak, egun ezberdinetan banatuta.**

**Hala eta guztiz ere, euskarak tartea izanen du sanferminen bihotzean, Udalak nahi ala ez. Alde batetik, euskaldunen presentzia agerikoa izanen delako Alde Zaharrean, tabernetan zein karriketan; eta bestetik, herri kolektiboek egitarau alternatiboak ondu dituztelako, festetan ere gure hizkuntzak merezi duen espazioa izan dezan.**




# «Aurten bai, festagune herrikoi bat izanen dugu sanferminetan, UPNk nahi ala ez»

**XABI GARTZIA** ▪ Gora Iruñea plataformako bozeramailea

HERRI MUGIMENDUARI ESKAINITAKO FESTAGUNE BAT HITZARTU, ETA AZKEN UNEAN ENPRESA PRIBATU BATEN ESKU UTZI ZUEN IRUÑEKO ALKATE ENRIQUE MAYAK IAZ. EGOERA ERREPIKATU EZ DADIN, LEHIAKETAN EZ PARTE HARTZEA ERABAKI DU GORA IRUÑEA PLATAFORMAK AURTEN. HALA ERE, PRESTATU DUTEN EGITARAUA AURRERA ERAMATEKO KONPROMISOA HARTUA DU KOLEKTIBO HONEK.



**Xabi Gartzia, Gora Iruñea kolektiboko kidea.** E. G.

**Iragan urtean bezala, Iruñeko Udalak lehiaketa publikora atera du Runa parkeko eremuaren kudeaketa. Alta, zuek lehiaketa horretara ez aurkeztea erabaki duzue. Zergatik?**

Iazko esperientzia txarraren ostean, hausnarketa egin genuen plataformako kideok sanferminen gainean. Udalak egindakoa iruzur hutsa izan zela ondorioztatu genuen, epaimahaiak UPNren interesen alde egiten duelako beti. Manipulatua dago. Eta ez naiz Runa parkeaz ari soilik, festaren gainontzeko espazio gehienak ere modu bertsuan alokatzen dituzte: Foruen plaza, Gazteluko plaza... Interes ekonomikoa besterik ez duten enpresei ematen zaizkie baimen guztiak, eta herri mugimenduak ezin dio horri konpetentzia egin. Parekaezinak dira bi ereduak. Haiek diru irabaziak bilatzen dituzte, inbertsioak egin ditzakete, babesleak bilatu... Guk, ordea, jai herritarrak bultzatu besterik ez dugu nahi.

**Eta bildu al zarete Udalarekin?**

Bai. Udal ordezkariei esan genien ez genuela iruzur horretan parte hartuko, baina haiek erantzun zuten lehiaketan parte hartzea beste alternatibarik ez genuela.

**Ezezkoaren ostean, plan alternatiborik aztertu al duzue?**

Bai, jakina. Udal honekin, ezinbestean prestatu behar dituzu B, D edo Z planak, zer gerta ere. Hala ere, A plana abian dugu oraindik.

**Demagun zuen aukera nagusia bertan behera gelditzen dela. Orduan zer?**

"Aurten bai!" izan zen urte hasieran aukeratu genuen leloa, eta horri eutsi nahi diogu. Gune herrikoi bat izanen dugu sanferminetan. Bai ala bai. Modu batean ala bestean. Runa parkean egitea ezinezkoa bada, beste nonbait eginen dugu, baina saiatuko gara gure egitaraua mantentzen. Agian ez da izango uztailaren 6tik 14ra bitarteko egitaraua, baina ekitaldi nagusiak mantenduko ditugu edozein kasutan.

**Horretarako, dena den, Iruñeko kolektibo eta norbanakoen laguntza beharko duzue. Elkartasun sarea osatzea konplikatua izan da?**

Bai, batez ere kontuan izanda sanferminak aipatzen dituzunean, jendeak parrandan duela burua, eta ez dagoela lanean burubelarri egoteko prest, logikoa den bezala. Hala ere, lortu dugu laguntzaile eta boluntario sare handi bat, eta baimenik izan ezean, zenbait plaza okupatzea aurreikusia dugu. Hori baino konplikatuagoa izan da, alta, artistekin eta azpiegitura enpresekin hitzarmenak sinatzea. Rock taldeak, pailazoak edo jota kantariak izan, oso zaila da haiekin kontratuak egitea, udal baimena izango duzun ala ez jakin gabe. Data hauetan, kontzertu eta emanaldi asko egiten dituzte musikari eta taldeek, eta gurekin dirua galtzeko arriskua dute, sanferminetako emanaldia bertan behera gelditzen bada, uko egin diotelako beste nonbait jotzeari. Hori dela eta, eskerrak eman behar dizkiegu arriskatzea nahiago izan duten artistei, agertutako konpromisoagatik.

**Alkateak dio Udalak ezin dituela baimenak nahierara eman.**

Baina beste kasu batzuetan ematen ditu. Eta guri, adibidez, oso ongi iruditzen zaigu Basotxoko etxe erregionalen eremua edota Nafarroa Oinezen txosna jartzeko baimenak zuzenean eman izana, lehiaketarik egin beharrik izan gabe. Eskatzen diogun gauza bakarra da gurekin beste horrenbeste egin dezala. Finean, ustezko demokrazia honetan, gehiengoaren iritziak gailendu beharko luke, eta guk udalbatzaren gehiengoaren babesa dugu, hala adierazi baitzion oposizioak alkateari (Gora Iruñearen aldeko mozioa onartu zuten Geroa Baik, Bilduk, Aralarrek, PSNk eta Ezkerrak). Hiritarren borondatearen isla udalbatzaren osaketa dela onartzen badugu, gehiengoa dugu. Eta gehiengo horri kasu ema-







**Cartel distribuido por la plataforma Gora Iruñea en vísperas de los sanfermines.** GARA




**Una pancarta en la que se reclaman fiestas populares pasa de mano en mano en el tendido de sol de la Plaza de Toros.**
Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

nez, festa herrikoiak antolatuko ditugu kosta ahala kosta.

**Oztopoak oztopo, nola definituko zenuke Gora Iruñeak aurten ondu duen egitaraua?**
Ene ustez, oso egitarau mardula prestatu dugu. Akaso, ez da iazkoa bezain ikusgarria, baina egoerak baldintzatu gaitu, eta hala eta guztiz ere, festa polita eginen dugu. Hala, Reincidentes bezalako talde atzerritarren bat edo beste etortzekoa den arren, Euskal Herriko artisten alde egin dugu apustu. Bestalde, Iruñeko Udalaren programa ofizialari erantzuna eman nahian, egitarau euskalduna da gurea, ekitaldi eta kontzertu asko euskaraz izanen direlako.

**Askok ez diote egitarauari begiratzen. Kalera atera eta festa giroan murgiltzea nahikoa dela esaten dute.**
Eta halaxe uste dut nik ere. Gora Iruñearen aburuz, sanferminak ezin dira egitarau itxi batera mugatu. Bat-batekotasunean eta espontaneotasunean datza festa hauen xarma. Kalera atera, eta festaren parte zara. Lagunekin tragoxka batzuk hartu eta txaranga bat, batukada bat edo trikitixa talde bat ikusiko dituzu karriketan. Horregatik, guretzat, Runa parkean agertoki bat paratzea ez da helburu nagusia. Bultzatu nahi dugun San Fermin ereduaren gainean eztabaidatzeko eta hausnarketa egiteko bidea da. Zer nahi dugu, atzerritarrei begirako festak antolatu? Turismo agentziek eskaintzen dituzten pakete turistiko horietako bat? Sangria eta neurririk gabeko parranda soilik bultzatuko al dugu? Guretzat, behintzat, horiek ez dira sanferminak.

• PROGRAMA ALTERNATIVO •••

# Un programa popular que saca los colores al oficial

El programa de fiestas alternativo preparado por la plataforma Gora Iruñea es, al igual que el año pasado, manifiestamente superior al presentado por UPN. Y no solo por la cantidad de actividades que incluye, sino también por la calidad y, sobre todo, variedad de los intérpretes que subirán al escenario.

Una vez más, el Consistorio ha elaborado su programa oficial con el piloto automático encendido y la vista puesta en los saldos de la radiofórmula española. En cambio, Gora Iruñea apuesta por un ocio participativo y popular en el que tengan cabida actividades infantiles, conciertos, actuaciones de teatro, un cross popular, concursos gastronómicos y, por supuesto, animación callejera. Frente al concepto de programa festivo construido en torno a las corridas de toros y a la juerga alcohólica pensada para “guiris”, variedad e imaginación. Frente a la uniformidad, color. Y frente a monolingüismo excluyente, *elebitasun barneratzailea*.

**CONCIERTOS EN LA RUNA**

Entre los conciertos previstos para el escenario del Parque de La Runa destacan Kaotiko, Governors, Vendetta, Lendakaris, Pastors of Muppets, Raperos de Emaus, Itziarren Semeak, Gatibu o Mikel Urdangarin. Asimismo, habrá actividades para todos los gustos, como ferias gastronómicas, un campeonato relámpago de mus, olimpiadas populares, actuaciones de Teatro Paraiso, Trapu Zaharra o Zirika Zirkus, calderetes populares y juegos para los más txikis. Y todo ello, con coste cero para las arcas municipales.

En el momento de escribir estas líneas, el Ayuntamiento de Iruñea no ha hecho público el resultado del concurso público para gestionar el espacio de La Runa durante sanfermines. De hecho, todavía no se ha presentado ninguna candidatura. Desde Gora Iruñea se preguntan si el Consistorio será capaz de mantener ese espacio vacío antes que cederlo a los colectivos populares para que lo llenen con un programa que, además, saldría gratis.





• EUSKAL PRESOAK •••

# Festa urrunetik sentituko duten iruindarrak

Presoak sanferminetara hurbil ditzaten eta salbuespen neurriak buka daitezela eskatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Herrira ekimenak




Euskal presoen aldeko bazkaria Berriozarko frontoian, iazko sanferminetan. Aurten ere leku berean egingo da, datorren astelehenean.
Lander F. ARROYABE | ARGAZKI PRESS

Ez dira Iruñean izanen. Ez dute lagunekin zuritorik edo kubatarik hartuko, ez dira kontzertuetara hurbilduko, ez dute bokatarik eskatuko Alde Zaharreko tabernetan edo Nafarroa Oinezen txosnan. Zentsuratutako egunkarien bitartez izanen dute txupinazoaren edota entzierroen berri. Euskal presoak ez dira Iruñean izanen heldu diren sanferminetan. Baina sanferminetan izanen dira. Herrira kolektiboak hamaika hitzordu eta ekitaldi antolatu ditu Iruñerriko presoak gogoratzeko eta omentzeko.

Izan ere, Nafarroa osoko 84 preso politiko daude gaur egun kartzelan. Horietatik 56 Estatu espainoleko kartzeletan sakabanatuta daude; 24, Estatu frantsesean; eta bakarra (Iñaki Lerin berriozartarra), Londresen. Horiez gainera, hiru dira (Marilo Gorostiaga, Mikel Gil eta Bautista Barandalla), euren baldintza bereziengatik etxean preso direnak. Iruñerriko auzo eta herrietako bizilagunak dira Nafarroako preso gehienak, eta senideek ehunka kilometro egin behar izaten dituzte astero, beren aurpegia ikusi ahal izateko.

Zigorraren bi herenak edo hiru laurdenak beteak dituzten presoak eta gaixo direnak askatzeko galdegiten dute historikoki Etxerat eta Herrira elkarteek, eta aurtengo sanferminetan ere presente egonen da eskaera hori. Izan ere, asko dira egoera horretan diren preso nafarrak.

Alde Zaharreko Josetxo Arizkuren, Donibaneko Iñaki Etxeberria eta Iñaki Erro, Arbizuko Jesus Mari Mendinueta eta Tafallako Ventura Tome preso dira Estatu espainoleko kartzeletan (Pontevedran, Salamancan, Almerian, Zaragozan eta Murtzian, hurrenez hurren), gaixotasun larriak izan arren. Beste hamahiru lagunek etxean egon beharko lukete dagoeneko, zigorraren bi heren edo hiru laurdenak bete ostean. Ez da hala. Aurten ere giltzapean ikusiko dituzte Iruñeko festak.

Azkenaldian Europatik etorri diren epaien ostean, alta, esperantza errainu bat ikusten dute Parot izenez ezaguna den 197/2006 doktrina aplikatu dieten lagunek. Carlos Perez Ojuel arrotxapearra aske gelditu ostean, bederatzi nafar dira egoera horretan daudenak oraindik ere.

Horien guztien aurkako salbuespen neurriak bertan behera uzteko eskatuko diote Espainiako Estatuari datozen egunetan Iruñean. Izan ere, urtero bezala, presoen aldeko elkarteek egitarau mardula prestatu dute, espetxean diren lagun eta senideak gogoan.

### TXUPINAZOA, BAZKARIA...

Iaz bezala, Karmen eta Redin kaleen artean kokatu du Herrira plataformak bere gunea. Bertan, bokatak, pizzak eta edaria eskaintzeaz gain, kontzertuak eta kultur emanaldiak eginen dituzte, aldameneko Herriko Tabernan, Arrano elkartean edota horretarako propio muntatutako agertokian.

Herrira kolektiboaren sanferminak, alta, hasiak dira dagoeneko. Uztailaren 2an jaurti zuten presoen aldeko “Txupinazo urdina” eta hasiera eman zioten festa eta aldarrikapena uztartzen dituen egitarau zabalari.

Ohi bezala, bihar, preso eta iheslarien askatasunaren alde eginen dute topa Herrira Gunean, 13.00etan. Eta gauean, bi DJ ariko dira Herriko Tabernan, euren doinuekin giroa gozatzen. Etzi, uztailak 7, La Jodedera taldea eta DJ Elepunto igoko dira Herriko Tabernako taula gainera. Uztailaren 8an, Luziano teklatu-jotzaileaz gainera, DJ Jotatxo eta txaranga ibiliko dira bazterrak musikaz girotzen, eta hurrengo egunean, berriz, DJ Bull-ek eta Vendetta taldeak hartuko dute lekukoa. Gainontzeko egunetarako, Gatibu, Itziarren Semeak eta Fermin Balentziaren kontzertuak programatu ditu Herrira kolektiboak, baita bertso afari bat ere, uztailaren 11n, Maialen Lujanbio eta Andoni Egañarekin.

Azkenik, Etxerat erakundeak presoen aldeko ohiko bazkaria antolatu du. Uztailaren 8an izanen da, Berriozarko kiroldegiko frontoian.

**MUSIKA ETA BERTSOAK.** Gatibu, Itziarren Semeak eta Fermin Balentziaren kontzertuak antolatu ditu, besteak beste, Herrira kolektiboak, baita bertso afaria ere, Lujanbio eta Egañarekin.









# Una fiesta para el paladar



Varios mozos almorzando en plena calle. Cualquier lugar es bueno para degustar un buen ajoarriero. Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

En Euskal Herria, una fiesta no es fiesta si no va acompañada de buena comida. Incluso en los momentos de mayor apogeo etílico, la fauna iruindarra siempre busca algún lugar donde zamparse unos huevos fritos con patatas o un bocadillo de panceta y pimientos. Los platos sencillos, los de siempre, son los más demandados durante las fiestas, aunque también hay oportunidades para ajustarse el delantal y esmerarse en la cocina, o para degustar auténticas joyas de la gastronomía sanferminera.

El menú de San Fermín comienza con el almuerzo. Los del día 6 son los más demandados. Cientos de cuadrillas se reunen en bares, restaurantes, bajeras o incluso en la misma calle, para coger fuerzas antes del estallido. Los huevos fritos son imprescindibles en estas ocasiones, aunque pueden estar acompañados por casi cualquier cosa: txistorra, panceta, magras, tomate, patatas fritas, pimientos rojos o verdes, lomo... Por separado, o todos a la vez.

Durante los nueve días de fiesta, es frecuente retrasar el horario de la comida hasta media tarde (hay quien se sienta a comer a las cinco de la tarde), precisamente por la proliferación de los almuerzos, aunque el horario es lo de menos. Normalmente, la comida presenta una mayor elaboración en los platos, aunque sin abandonar la tradición sanferminera. Por ello, los platos tradicionales para degustar en safermines son el ajoarriero, el estofado de toro o incluso las pochas (solo para los más valientes o aquellas personas con estómago de hierro).

El ajoarriero, como todo el mundo sabe, es un plato elaborado a base de patatas, ajo, huevo y aceite, y por supuesto, pescado. En Iruñea, el más popular es el ajoarriero de bacalao, mientras que el estofado de toro es un auténtico manjar hecho a base de carne, patatas y verduras.

El tendido de sol de la plaza de toros es también un auténtico desfile de comida y bebida, sobre todo durante el cuarto toro de la tarde. En ese momento, muy pocos son los que atienden a lo que ocurre en el ruedo, y es normal ver a las peñas repartir entre sus socios raciones de ajoarriero, espaguetis, paella o redondo en salsa, de espaldas a la arena. Silencio, se come.

## Sugerencia: estofado de toro

**Raquel Martiartu · Cocinera**

**INGREDIENTES (PARA 4 COMENSALES):**

-1 Kg de carne de toro para guisar.
-1/2 litro de vino tinto.
-1 copa de coñac.
-1 cebolla.
-2 zanahorias.
-2 dientes de ajo.
-1 puerro.
-1 manzana.
-Tomillo, laurel y media rama de canela.
-Caldo de carne o agua.
-Aceite de oliva.
-Harina.
-Sal y pimiento.

**ELABORACIÓN:**

El día anterior a cocinar el estofado, hay que poner a macerar el toro en trozos con el vino, el coñac, el tomillo, el laurel, la canela y la sal. Picamos las verduras muy finas y las sofreímos en una cazuela con aceite de oliva. A ello le añadimos la carne bien escurrida, salpimentada y pasada por harina.

Posteriormente, agregamos el líquido de macerar previamente colado, y dejamos que reduzca un poco. Una vez conseguida la reducción deseada, echamos caldo de carne o simplemente agua, hasta que el guiso quede cubierto, y cocinamos a fuego suave durante hora y media, aproximadamente.

Tras ello, añadimos la manzana (rallada o cortada en tiras muy finas), y cocemos durante media hora más. Conviene comprobar que la carne esté en su punto, tanto en cuanto a textura como en lo referente a la sal. Se sirve bien caliente. On egin!




• PEÑA DE CINE •••

# Del tendido de sol al celuloide



Imagen de mozos con una muñeca hinchable en 1975, cuando se rodó «La trastienda». José FRADE

Durante los sanfermines de 1975 María José Cantudo estuvo en Iruñea rodando "La trastienda", del director Jorge Grau. El tiempo no ha pasado en balde por esta obra casposa que, a pesar de sus evidentes limitaciones, sí que tiene varios alicientes, como las imágenes de archivo que conforman un testimonio gráfico de gran valor y que reflejan las fiestas de aquella época, con amplia presencia de las peñas El Bullicio, La Jarana, La Única, Oberena, Bronce, Armonía Txantreana y, sobre todo, Muthiko Alaiak.

Sin embargo, la película pasó a la historia no por sus méritos cinematográficos, sino por ser el vehículo de lucimiento de la Cantudo, que en esta obra ofrecía su primer desnudo integral. El alto contenido erótico de la película, así como los pequeños papeles que desempeñaron algunos miembros de las peñas, hicieron correr el rumor de que la actriz había estado "divirtiéndose" con media Iruñea, y que era una auténtica depredadora sexual, cuando lo cierto es que los descansos del rodaje los pasó enclaustrada en una residencia religiosa, la del convento de las Clarisas en Zizur Nagusia.

Esta es una de las innumerables anécdotas que pueblan las páginas de "Peña de cine", un libro en el que el periodista, historiador y divulgador cinematográfico Ramón Herrera nos muestra la relación existente entre las peñas de Iruñea y el cine. La obra, editada por la Federación de Peñas, supone la quinta incursión de Herrera en la literatura cinéfila sanferminera, después de trabajos como "Cine y Sanfermines: 25 momenticos en la pantalla", "Carnaval de ladrones", "Fiesta/The Sun Also Rises" y "850 metros de celuloide: secuencias del encierro de Pamplona en el cine".

**«LA MÁS ALUCINANTE»**

Según el autor, su último libro es «un tres en uno», ya que reúne, en una sola obra, tres bloques completamente distintos. En el primero se analizan las películas en las que tienen presencia las peñas sanfermineras, comenzando por "Gayarre" (Domingo Viladomat, 1958) para concluir con el documental "Sanfermines 78" (José Ángel Jiménez y Juan Gautier, 2005) que analiza la muerte de Germán Rodríguez por disparos de la Policía española. Entre una y otra destacan joyas como "Currito de la cruz", de 1926; "Sarasate", de 1941, o "Luna de verano", de 1958.

En opinión de Herrera, la película más alucinante basada en los sanfermines es "Fiesta/The Sun Also Rises", de Henry King. «El film se rodó principalmente en México, y tuvieron que recrear los sanfermines en localidades como Morelia o Chapultepec. La mayoría de extras y figurantes tienen unos rasgos completamente amerindios, las tascas aparecen decoradas con motivos flamencos y todo parece recién salido de un corrido mexicano», resume.

Las peñas y sus pancartas hacen también su aparición en obras como "Luna de verano" (en la que participó la Armonía Txantreana); "Il momento della veritá", de Francesco Rosi (con presencia de la peña Jarana); la surrealista e inclasificable "Don Quijote de Orson Welles" (Jess Franco, 1992), o "Cita en Navarra", de Javier Grañena, que a pesar de ser «horrorosa», en opinión de Herrera, cuenta con apariciones de Muthiko Alaiak, Armonía, Jarana y Anaitasuna.

## El NO-DO franquista

**El segundo capítulo del libro es un glosario sobre las apariciones de las fiestas de San Fermín en la serie cinematográfica «Rincones y nostalgias de Pamplona», del cineasta Antonio José Ruiz. Por último, la obra concluye con una recopilación de todos los noticiarios del NO-DO franquista en el que se hace referencia a los sanfermines, desde 1943 hasta 1976.**

**Poco a poco, Ramón Herrera va completando una biblioteca muy particular que aúna celuloide y temas sanfermineros. Sus dos últimas obras han sido editadas por la Federación de Peñas, y lo mismo ocurrirá con la próxima, todavía sin título. «Se centrará en la Comparsa de Gigantes y en sus apariciones en el cine», adelanta. Su publicación está prevista para el año que viene.**

